

- **Kultura:** San Blas Lehiaketan izena emateko epea zabalik
- **Zer berri:** Merkatu plaza berritzeko dirulaguntza lortu du Udalak

soraluzeko
hamabostekaria **235.** alea
2011ko urtarrilaren 14an

@ pil-pilean



ERRETZAILEAK KALERA!
Tabakoaren legea herrian

SORALUZECO URTAROEK ARGAZKI LEHIAKETA

NEGUA



Antolatzaileak:



Gaia: Negua adierazten duen Soraluzeko edozein argazki; natura, kalea, baserria...

Epea: martxoak 31

Nora bidali: aidizkaria@pilpilean.com

Argazkien argitalpena: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herniko egutegian argitaratuko dira.

Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldegiko erakusketa gelan.

TXURITXU

Zugkin
gozatzen

943 75 24 43

Santa "Loa katea 22 behe



GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



TXURRUKA JATETXEA

www.txurruka.com

943 75 15 81



ARMENDIA JATETXEA

Ezozí Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



ARRANO taberna

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

**ARITZ ARIZAGA****EGOITZ UNAMUNO**

SEKRETUAK

Ondo pasatu al dittuk Gabonak? Eta ondo hasi al dok urtia? Urte berrixakin hainbat gauza berri etortzen dittuk, batetik urteroko prezio igoerak eta bestetik aldaketak eta norberan asmuak. Aldaketa honek batzutan inposatuta datozik, adibidez oin tabernetan sartu eta kerik usaindu biharrik ez izatia, bere garaixan pezetak laga eta euruak erabili biharra... Beste batzuk norberak bere buruari ipintzen jotsazik: pisua galdu bihar dala, lagunekin gehixago egon bihar dala... Bakoitzan asmo honek betetzen diran edo ez ezidak galdetu, hori norberak jakin biharko jok. Aldaketa guzti honek ondo pentsatuta egon bihar juek, gero bestela bere ondorixuak jittuek eta. Juan zan urteko azkeneko Pil-Pileanian irakurri najuan herrixan erdialdia peatonalizatu bihar dabela, eta ez juat uste Plaentxia moduko herri baten hori kontu erreza danik. Aurreko astian, aste honetan izan ez badok, bi anbulantzia herrira etorri eta bata Gilako Zubiko “itxituran” eta bestia Santa Ana kalekuan aurrera ezin eginda gelditu zittuazen. Haura zabaltzeko ez jeuan iñor, eta horrek bildurtu egin ninduan, hurrengo baten zer pasa ete leiken pentsatzen. Nik uste halako aldaketak sakon pentsatzia komeni dala. Ikusten dok Egoitz, hauxe dok urte barrixak ekarri dostana. Hi ze moduz 2011 berri honetan? Zeoze espeziala egin bihar dok aurtan? Ah, eta ahaztuta, amaittu aurretik, urte berri on!

***Herrixan
erdialdia
peatonalizatzea
ez da kontu
erreza
Plaentxian***

Aritz Arizaga

***Nik proposamen
bat jaukat,
Bergaran ertzain
bat kendu eta
Soraluzen sereno
bat ipintzia***

Egoitz Unamuno

Urte barri on hiri be. Hasi dan honetan itxura politta jaukak ezta? Nik seguru daukatena dok hementxe biziko nokela eta Gasteizera unibersidade-ra buelta batzukegin biharko dittutela. Hortik aurre-ra... Herrixan erdialdia ixtian kontuakin arduratuta

haguala diñok. Ondo Aritz! Egutero bizi bihar dogun herrixagaittik arduratzia komeni dok, ezta? Nik etxaukat ba gai horretan ardura berezirik. Inguruko herri danetan dabixaz autueri herrixan erdialdeko atiak ixten. Kasu honetan atzera bueltia aurrerapena dala pentsatzen jatak. Hik diñuan kasuan zein dok benetako arazua, herrixan erdialdia itxita egotia ala ez egotia inor zabaltzeko? Gaur egun pibotia zabaltzeko mando bat hartzia nahikua dok baina nik beste proposamen bat jaukat, Bergaran ertzain bat kendu eta Soraluzen sereno bat ipintzia. Gure gizartian autuen kontua zorokeri haundi bat dok. Aurrekuan telebistan dokumental edar bat bota juen La

Dos-en “Compror-Tirar-Compror”. Asko pentsatzen dabela emoten daben tipo frantsez batek esaten juan: “goazen errit-mora munduko baliabideak laster xahutuko ditugula ukatzeko zoroa izan behar da edo bestela ekonomista. Tragedia da gaur egun denok garela ekonomistak!”. 2011 urte berezixa izango dok. 1936tik 75 urte pasatu dittuk. Bajakau zer gogoratu eta zer konpondu oindio. Tira Aritz, badatok gure tren. Benga! “igo guztiok trenera, hurrengo geltokia; bakea!”.

Goguan hartzeko

“Bide batez egitten danak, bi balixo dau”.
Gotzon Garate, euskal atsotitza



GUTUNAK

Pobreziarekin amaitzeko ondasun banaketa justu bat

Aurten antolatuta ditugun “Liburu eta Jostailu truke azoka” eta “Jantoki Herrikoia” ezingo genituzke burutuz soraluzetarren laguntzarik gabe. Eskerrak eman nahi dizkiegu Keixeta eta Atxolin Guraso Elkartei Truke Azokan parte hartu izanagatik. Eta nola ez, taberna eta denda guztiei, beraien ekarpenekin Jantoki Herrikoia antolatzea posible izan delako. Ezin dugu ahanzi tabernari eta dendari gehienak autonomoak direla eta soraluzetar asko bezala soldata prekarioak dituztela, baina horren gainetik esfortzua egin eta hor egon dira gutxien dutenei laguntzeko prest.

Egoera larria pairatzen ari gara asko krisi honen aurrean, baina eskaintzen diguten errezetak gure egoera larriagotu egiten du: Langabetuei bideratzen zaizkien 426 euroko laguntza atzera bota dute; Lan Erreforma eraberritu egin dute langileei babesa eman beharrean kaleratze masiboak erraztuz eta kaleratutako langileei eman beharreko kalte ordainak murriztuz; erretiro adina igotzea nahi dute; pentsioak izoztu egin dituzte; jaiotzen diru laguntzak kendu egin dituzte, baita

prekarietatean bizi direnei ere; EAEn 90.000 familia etxebizitza baten beharrean dauden bitartean, aterabiderik gabe milaka etxe huts daude; EAEko aurrekontuetan 10 milioiko murriztea pobreziaren aurkako GGD (IMI) eta GLL (AES) laguntzetan; eta gainera langabezia igotzen ari da.

Gutxien daukagunoi errezeta hori aplikatzen diguten bitartean, Banku Pribatua milaka milioi-rekin saritzen dute, EAEn 10.000 milioiko Iruzur Fiskalaren aurrean ez dute ezer egiten.

Prekarietate honetatik irtetzeko aberastasuna modu justu batean banatu behar da, ezin dugu onartu EAEn aberastasunaren ia erdia (%44,78) gutxiengo baten kontrolpean egoterik, populazioaren %1,67aren eskuetan hain zuzen ere.

Errealitateari egokitzen den pobreziaren muga bat markatzea proposatzen dugu Elkartzenetik, tresna bezala, aberastasuna modu justuago batean banatu eta ekonomia demokratizatzen hasteko.

Herritar guztiok eztabaidatu, antolatu eta gure eskubideak borrokatu behar ditugu.

Elkartzen

Eskerrik asko Mari Domingi eta Olentzeroren partez

Aurtengo Mari Domingi eta Olentzeroren ongi etorrixa preparatzen sekula baino jente eta talde gehixagok jardun dogu elkarlanian. Eskerrik beruenak zuen ilusioa eta ahalegina aportatu dozuen danori: Atxolin Guraso Elkarteke gurasuak, Kukumixoko begiraliak, Musika Eskolako ikasliak, Ikastetxeko irakasliak, Urrats Dantza Taldeko dantzariak, Udala eta modu batera edo

bestera zuen laguntza emon doskuzuen hainbat eta hainbat soraluzetarrak. Giru gutxi izan arren elkarrekin lan eginda herrixan gauza edar askuak egin geinkezela erakutsi dogu. Plazer bat izan da etorkizunian egin biharrekuaren irakasgai bat be bai. Landu deigun elkarlana. Muxu bana.

Pil-pilean Euskara Elkartea

Pil-Pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



bittartetik



Iosune Egaña

Gabonak beti Gabon

Aurten be bagara plaentxiar batzuk Gabonak etxetik urrun igaro dittugunak. Batzuk lurralde desberdin batian bizi nahi izan dittugulako eta beste batzuk metalezko barrotiek eragotzi dotselako. Gaztetako oroitzapenak pil-pilian jartzen jakuz danori, Olentzerok txikittan ekarritako oparixez gogoratzen gara: kotxe kapotia, hori ikatza ez zekarrenian... Ondiokan badakak akorduan nola behin Heidin kamisetia eskatu eta Lucky Lukena ekarri zostan. Seguru ez zebala letria ulertu, kaligrafiak kontua izango zan... Lurralde batian edo bestian egonda, Gabonak beti Gabon diranez, Txilen be edarto pasatu dittugu jaixak. Hori bai, kantuan has-teko garaixa heldu eta gabon kanta danak neguakin loturia zeukela konturatu ginan "blanca navidad", "corriendo por la nieve"... baina Txileko Gabonetan ez dago edurrik, ez hotzik, ezta negurik! Hamengo Gabonak hondartzan ospatzen dira. Beste behin be Iparraldeko herrialde aberatsek Gabonak bereganatu dittue gainontzeko lurraldietara euren jai negutiarra eta kontsumistia zabalduz eta euren gabon xume eta politteien barazu eginaz.

Gaztaina saltzaile berriak ditugu herrian

Udazkenarekin batera heldu da herrira gaztaina erre usaina. Manex eta Gemma dira asteburuetan gaztainak erretzeko ardura hartu dutenak. Biak dira hasiberriak langintza honetan. Bata eibartarra da eta bestea katalana. Biak ere pozik daude herriarren aldetik jasotako harrekin.

Zela etorri zarete gaztainak saltzera herrira?

Iazko saltzailiak lagunak dittugu eta kalia lana egittia aberasgarrixa zala be bagenkixan. Soraluzetarrik ez da animatu eta herrixa gustatzen jakulako hartu dogu guk aurten gaztainak saltzeko lana.

Zeinek erakutsi dotsue?

Lehenago honetan jardun daben lagunak emon doskuez lan hau egitteko bihar diran azalpenak. Eta baita materixala be! Txabolia, sua egitteko bidoia, gaztainak nun erosi, zela erre, sua zela piztu... pazientzia haundixakin!

Zela doiaz aurtengo salmentak?

Asteburuan eta eguraldixan arabera aldatzen da. Hotz haundixa egin dabenian gehixago, tripi berotzeko edarrak dira eta! Gehienez 20 edo 25 kilo saldu dittugu asteburu bakarrian. Gaztainen sasoian bizitzeko lain emoten dau lan honek eta jasotako irabazixak erdibana egitten dittugu, lanegunak eta orduak beerdibitu egin dittugulako. Proporzinuan, ondo legoke lan danetan honetan moduan kobratzia!

Manex Zarrabe,
24 urteko
eibartarra.

Zelako harrerria euki dozue herriarren artian?

Berba edarrak be jaso dittugu herriarren partetik eta asko eskertu dabe Gemma euskeraz egitten ahalagintzia. Kexa gehixen txabolian egituriagaittik jaso dittugu, itxura nahiko eskasa daukala esan doskue eta margotzeko mesedez. Hurrengo erronkia hau txukuntzia izango da!

Noiz arte jardungo dozue?

Galiziako gaztainak amaitzen diranian txabolako atiak itxiko dittugu. Otsaila hasieran seguru enik.

Eta datorren udazkenian zer?

Ikusiko da! Soraluzetarren eta gure biharren arabera jardungo dogu. Bestela Eibar ez dan beste edozein herriaran ibiliko gara, seguru-seguru.

"Gaztainen sasoian bizitzeko lain emoten dau"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Merkatu plazan eta ikastetxean lanak egiteko dirulaguntza jasoko du Udalak



Soraluzeko Udalak joan den irailean Merkagune-Herri Merkataritza (merkataritza-lan-kidetzako zonako estrategiak sustatzera bideraturiko laguntza) programako dirulaguntza eskaera egin zuen eta 26.771,94 euro jaso dituela jakinarazi du. Diru hori Merkatu Plazako beheko solairua txukuntzeko erabiliko du udalak, besteak beste, lurra berriztu, pertsianak aldatu, elektrizitatea hobetu eta margoitu egingo dute. Berrizte lanak diharduten bitartean dendariak

mugitu beharrik ez izatea da udalaren asmoa. Hurrengo pausua lan hauen esleitzea izango da.

Plaentxi H.I.ko arrapala ere aurten egingo da

Bestalde, iazko uztailan udalak Eusko Jaurlaritzara egindako dirulaguntza eskariak ere erantzuna jaso du. Udalak 27.119,94 euro jaso ditu Plaentxi Ikastetxe sarreran irisgarritasuna errazteko arrapala eta markesina egiteko. Udalaren nahia da lanak aurten egitea.

Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzea

Urtarrilaren 20an Udalbiltzako auzipetuei babesa erakusteko asmoz, elkarretaratzea deitu dute herriko eragile eta norbanako ezberdinek. Bilkura Plaza Barrixan egingo da arratsaldeko 19:30ean. Auziaren epaia egun berean aditzera emango du Auzitegi Nazionalak.

Aurten sei odol-emate saio herrian

Gipuzkoako odol emaileen elkarteak 2011. urteko odol-emate egutegia kaleratu berri du. Herrian sei aldiz izango da odola emateko aukera. Lehen urtarilaren 21ean izango da, arratsaldeko 18:30etatik 20:00ra bitartean, Itxaropena Jubilatuen Etxean.

Nagusien artean odol-emale gehiago

Sabin Urcelay doktorearen esanetan iaz 244 odol emate egin ziren herrian. Horietatik 171 gizonezkoek egingoak dira, 73 berriz emakumeek egingoak. 51 eta 60 urte bitarteko herritarrak dira odol gehien ematen dutenak, guztira 53 ateratze. 18 eta 25 urte bitartekoen artean berriz bost odol-emate soilik egin ziren 2010. urtean.

2011. urteko egutegia honakoa da:

Martxoak 25, maiatzak 20, uztailak 22, irailak 23 eta azaroaren 25ean 18:30etik 20:00ra Itxaropenan.



Soraluzeko odol emaileak

110 soraluzetar presoek eskubideen alde

Aurreko zapatuan 64.000 euskal herritar inguruk Bilboko kaleak bete zituzten, "Egin dezagun urratsa, eskubide guztiekin euskal presoak Euskal Herrira" lemapean egindako manifestazioan. Soraluzetik bi autobus eta inoiz baino jende gehiagok bat egin zuen aldarrikapenarekin. Ehun lagunetik gora joan ziren Bilbora.



Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoek frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

SAPAKo teilak autobus geltokira

Herriar batzuk salatu dutenez, haizea egin duen egunetan SAPA fabrikako teilatuko hainbat teila jausi dira azpiko autobus geltokira. Arazoa konpontzeko, udalak SAPAKo administrazio kontseiluari konponketa lanak egin ditzala eskatu dio. Egun gutxiren buruan arazoa konponduko dutela espero du udalak.

**KZgunea arratsalde zabalduko dute**

Herriko informatikarako eta internetarako gunea arratsalde zabalduko dute hilabete honetan. Urtarrilaren 20an eta 27an 16.00etatik 20.00etara. Informazio gehiago 943 753045 edo 943 252351 telefonoetan eta tutor.soraluze@kzgunea.net helbidera idatzita.

Gabonetako zozketen zenbaki sarituak

Gabonetan Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak zozketatutako txerrikumea, Ion eta Nerea Orbea eibartarrendako izan dela jakinarazi dute. Saria jaso dute dagoeneko.

70.013 da Bizikaleko zenbaki saritua

Herriko merkatarik elkartek urtarrilaren 6ko "el niño" loteriako lehen konbinazio irabazlea aukeratu zuen elkarrearen azken zozketako saritua izateko. 70.013 zenbakia da aipatutakoa eta ustez, errifa Benito Altzariak dendan banatu zuten. Irabazlea oraindik agertu ez bada ere, arduradunek hilabeteko epea lagako dute hau saria jasotzeko. Elkarrearekin harremanetan jartzeko, bizikaleelkartea@gmail.com helbidera mezu bat bidali edo 638 202651 telefonora deitu.

Kargu publikoen irabaziak jeistea ez da onartu

Eguazteneko udalbatzaurrean Soraluzeko kutxa bati 475.000 euroko kreditua eskatzea hitzartu zen. Iker Aldazabal EAJko bozeramaileak, defizitaren aurrean Udalak diru kopuru hau eskatu behar izatea salatu zuen. Arizagak bere aldetik, bere adostasuna agertu zuen, egoera, ona ez dela esatean. Gehitu zuen: *"Guk ez dogu egoera hau sortu, jaso egin dogu. Aurrezki gutxi eta zorpe maila handia daukagu".*

Soldata jaisteko proposamenak ez du aurrera egin

Gobernu taldeak Soraluzeko Udaleko kargu publikoen soldata jaisteko proposamena egin zuen, laugarren aldiz. Aldeko bost botu eta kontrako seikin, ez zen proposamena onartu. Aldazabalek eta Del Bosquek *"koherentzia mantendu"* nahi izan zuten, proposamena aurkeztu den lehengo aldieta bezala aurka bozkatuz: *"Uste dogu 5-6 urte inguru soldata igo gabe egotia nahikoa dela, KPI-a*

ere igo gabe, soldata izoztuta eta %10a aurrezteaz hitz egiten ari gara?" kexatu zen zinegotzi sozialista. Akizuk hartu zuen hitza. Egoera ekonomikoa ez dela aurreko aldietakoa bezalakoa, aldatu egin dela eta soldata jaitziz diru dexente aurreztuko litzatekeela aipatu zuen.

Jeltzaleen mozioa onartu zen

EAJren mozioa, Jaurilaritzak prestazio ekonomikoak ez kentzeko eskaria udalbatzarrean onartu zuten, puntuz-puntu bozkatu eta gero. Eskari eta galderen atalean lehenengo Baltegieta kaleko autobus geltokian SAPAtik eroritako teilen gaia zertan den galdetu zioten EAJk Gobernu Taldeari. Gero, ume kopurua gora doala eta ia azpiegiturak haunditu edo txukuntzeko asmoak zertan diren galdetu zioten Akizuri. Honek, lanean ari direla baina oraingoz ezer konkreturik ezin dutela aurreratu erantzun zien.



EAJk Jaurilaritzak prestazio ekonomikoak ez kentzeko eskaria mozio bidez aurkeztu zuen.

Soraluze
eraikiz!
2011

Herri Batzarra

Noiz: Urtarrilak 19 asteazkena, 19:00etan

Nun: Zinian

Soraluzeko Ezker Abertzalea

Soraluzek

Bai


UDALBILTZARI EUSKAL HERRIARI !

Elkarretaratzea

Urtarrilak 20, eguna
Arratsaldeko 19:30ean
Plaza Barrixan



SORALUZKO
BABES TALDEA:



eta hainbat plaentxiar

*Zulotik
begira*

DBHko ikasleak kulturartekotasuna lantzen

Soraluzeko DBH institutuko ikasleok eta irakasleok Gabonen Surretik izugarrizko jaialdia prestatu genuen, modu bikai-
nean lehen hiruhilekoa ixteko asmoz. Abenduaren 22an ikasle
denak poz-pez gerturatu ginen eskolara, bagenekielako lehen
hiru orduak kulturartekotasuna lantzen emango genituela. Ho-
rretarako pelikula ezberdinak ikusi genituen eta ondoren, urte-
roko hamarretakoa ez zen faltan izan: txoripana! Bai goxoa!
Tripa ondo bete ostean, kirola egiteari ekin genion eta saski-
baloi partidak jokatzen hasi ginen. Jarraian hiruko jaurtiketak
egin genituen eta gose ginela aprobetxatuz, eskola osoak patata
tortila lehiaketan parte hartu genuen. Izugarrizko giroa
sortzeaz gain, demaseko tortilak ere
egin genituen, ez pentsa! Gaboneta-
ko jaialdiari bukaera emate aldera,
sokatiran ibili ginen etxera joateko
ordua iritsi zen arte.
Etxera askoz alaiaago bueltatu ginen
15 egunetako oporraldia zain genuen
eta! Urte berri on irakurle denoi, es-
kola guztiaren partez!





Keak banatutako herritarrak

Urte berria eztabaidan hasi dute askok. Tabakoaren legea ahoz-aho dabilen gaia da eta herritarren artean asko eztabaidatua. Horren ohitura normaltzat genuena zigortu egiten da orain eta horrek zer esana eman du kalean. Soraluzen ere, Espainiako Estatu guztian moduan ezarri da legea.

Kaleak beteta, tabernak hutsik

Soraluze tabernaz josita dago eta erretzaileak ere, dexente dira. Gila, Arrano, Edurtza eta Gaztelupeko tabernariei galdetuta denek diote orain giro askoz hobean egiten dutela lan. Magda Lopez Gila tabernako zerbitzariak goizeko 6.30ean zabaltzen du taberna egunero eta lehen goizean goizetik ke artean egiten zuen lan: “*Neretako alde demasa dago. Askoz hobeto arnasten dot ingurua ez dagualako horren metatuta*” dio. Amaia Amor Arranoko langilearen ustez onena da tabako usaina ez dela erropetan geratzen. Gaztelupen ere garbitasuna igarri

dute: “*Egixa dana da, garbi-garbi darella tabernak. Alde horretatik oin askoz hobeto gare*”.

Ostalarien beldurretako bat zen bezeroen kontsumoa jaitsiko ote zen. Lautik hiruk uste dute oraindik goiz dela ezer nabaritzeko. Gila da lauetatik gehien nabaritu duena: “*Guk asko igarri dogu. Gazterixia oin ez da etortzen bazkalosteko kafesnia eta kolakaua hartzera ze oin ezin dabe zigarruakin lagundu*”. Dena dela, denek nabarmendu dute tabernak orain hutsik egoten direla. Izan ere, jendeak edaria eskatu eta zuzenean kanpora jotzen du:

Magda Lopez
“*Oin askoz
hobeto
arnasten
dot*”



AMAIA AMOR
Arrano tabernako zerbitzaria

PILAR PAINO
Edurtza tabernako langilea



ITZIAR ARGARATE
Gaztelupe tabernako jabea



Aisialdirako beste lekuetan, zer?

Elkarte gastronomikoak: Elkarte bakoitzak asanblea bitartez erabakiko du erre ahalko den ala ez. Momentuz, Soraluzeko elkarteetatik bakar batek ere ez du gai honen gainean erabakirik hartu. Gehienek asmoa da urtarrila bukaeran edo otsaila hasieran egingo dituzten asanbladetan eztabaidatzea.

Gaztetxea: Erre daitekeela erabaki dute asanbladan; beti ere, bereziki umeentzako antolatutako ekitaldi bat ez badago.

Itxaropena Jubilatu Etxea: 2006ko urtarrilean ezarri zuten tabakoa erretzeko debekua. Hasieran jende gutxi agertzen zen. Egun erabiltzaileek ohiturak aldatu eta berrito betetzen da elkarteak.

“Jende guztia kalera urtetzen da edarixa eskuan zigarrua erretzera eta tabernan giro hotza dago. Karta jokura datozenak esaterako, partidia lagata kanpora eta barrura ibiltzen dira erretzeko eta erretzailiak ez diranak barruan, euren zain” dio Pilar Paino Edurtzako ostalaria. Arranon ere bezeroak kalean: “Jendia kafia hartu eta kalera urtetzen da. Banketak, periodikua eta biharrezkua kanpora etaratzen dabe eta tabernia hutsik geratzen da”.

Hori horrela, kaleak hornitzen hasi dira tabernariak, hautsontzi eta edariak lagatzeko mahaiekin. Hala ere, zigarrokin ez betetako espaloiak nahiko paisaia ohikoa bilakatzen ari dira. Horren kaltetu zuzenak garbitzailak dira. Josu Urrutia eta Jose Antonio Bouzas Mankomunitateko beharginak dira: “Oin taberna kanpuetan eta inguruetan zigarro mutxikin asko batzia tokatzen jaku” dinue.

Sara Goenaga Gabolats kaleko estankoko jabea da. Salmentaren jaitziera ez dela oraingo gauza dio:

“Tabako salmentia behera eta behera doa, baina ja aspalditik eta etorkizunian ondio gehixago bajatuko dala argi daukat. Legia inkonkluentia

phantsatzen jata. Tabernetan saldu bai baina ezin erre. Ikusiko da! Legia ezarri daben beste herrialdietako ostalarixek ez ei dabe horrenbeste galdu”.

Amaia Amor
“Tabernia aisialdirako tokixa da, erre, edan edo jokatu egitten dan lekua”

Isunak, legearen alderik zatarrena

Pilar Painoren ustez legea oso gogorra da. Bere ustez tabernak aisialdirako tokiak dira eta berak onartuko luke erretzea: “Hau aisialdirako tokixa da, estraktoriekin prestatuta dago kerik apenas egoteko. Bi zona egon zeikezen, baina hori be ez dabe lagatzen! Isunena da alderik zatarrena, ni ez naiz inore ez erretzeko esateko, hau ez da kartzelia eta jendia nahikua heldua da. Oso txarto phantsatzen jata alkar salatze hori”. Itziar Gobernuaren hipokresiak harritzen du, zigortzen diharduena legalki saltzeagatik: “Ni konsziente naiz taberna bat daukatela eta beraz, hamen erre egitten dala. Hori, nere arazua da. Ez jata ondo iruditzen gero Gobernuak tabakua tabernetan eta estankuetan saltzia, askoz txartuago naturala ez dana, aditibo eta guzti, naturalizat saltzia eta gero zigortzia”. Amaia Amorrek aisialdirako tokietan erretzen laga beharko litzatekeela uste du: “Neri ez jata guztiz ondo phantsatzen lege hau. Azken finian, tabernia aisialdirako tokixa da, erre, edan edo jokatu egitten dan lekua”.

Garbitzailak
“Taberna kanpuetan zigarrokin asko batzia tokatzen jakur”

MAGDA LOPEZ

Gilako zerbitzaria



Beste iritzi batzuk

Sara Goenaga,
estankoko jabea:

“Tabako salmentia behera eta behera doa, baina ja aspalditik eta etorkizunian ondio gehixago bajatuko dala argi daukat. Legia inkonkluentia phantsatzen jata”.



Jose Urrutia eta
Jose Antonio
Bouzas,

mankomunitateko
langileak:

“Taberna kanpuak eta inguruak zikitzen dira oin, zigarrokin ez betetzen diralako”.





Ikastetxea magiaz bete zen


Ikasturte honetan ere Olentzero eta Mari Domingi gure ikastetxera etorri dira zoriona eta ilusioa barra-barra zabaltzera. Aurtengo bisita berezia izan da ordea, lehenagotik presatutako dantzaldi batekin eman genien ongi-etorria eta. Laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoek eta irakasle talde batek, euskal dantzak eskaini zizkieten, ikastetxearen esker ona zabaltzeko asmoz. Musikaren erritmoekin batera emozioak sortu ziren: ilusioa, harridura, poza... zorionak ikastetxeko bazter denak gainezkatu zituen.



Gero Gabon kantak abestu genizkien eta bakoitzak idatzitako eskutitza eman genien Olentzero eta Mari Domingiri, behin eta berriro "oso ondo portatu garena" esanez.

Ikastetxeko ikasle, irakasle eta langile guztion partetik, **URTE BERRI ON** soraluzetar guztioi!





Zelakua izan da eskolarako bueltia?


Zer moduz Gabonak?

Hafsa Elabdri, 8 urte



Gabonetan etxian egon naiz familixiakin eta egixa esan, oporretan hobeto egon naiz eskolan baino, egunero kalian lagunekin korrika egitten eta jolasten ibili garalako. Bueltan onena gelako lagunekin topo egittia izan da!

Jon Ander Murgizu, 8 urte



Eskolara bueltatzeko gogo gutxi neukan eta aitta etorri jata gaur esnatzera, begixak zabaltzia kosta egin jatalako! Bergaran egon gara familixiakin, eta ondo afaldu eta kantuan be egin dogu. Onena Game Boy bat oparitu dostela!

Goizian goiz jaikitzia asko kostatu jata baina eskolako lagunekin elkartzeko gogua neukan. Gabonetan amaman baserrixan egon gara lehengusinekin eta oso ondo pasatu dogu, kantuan eta dana egin dogu! Olentzerok Nintendorako joko bat ekarri dosta, eta kolonia bat!

Abrahan Armendia, 8 urte



Gogua neukan eskolara bueltatzeko, gelakidiak ikusteko batez be eta ez jata asko kostatu ohetik jaikitzia. Gabonetan Soraluzen eta Bilbon egon naiz eta denbora gehixena baloiakin eta sokasaltuakin jolasten emon dot. Olentzerok eskumuturrak egitteko jolasa ekarri dosta.

Soukaina Sijilmasi, 9 urte



denborapasa

Hitz zuzenaren bila

Hiztegian begiratu gabe, aukeratu zuzen idatzia dagoen hitza.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Gaztetxeko Hamabostaldi Kulturalak itxi ditu ateak. Ekitaldi mordoa egin dute eta tartean izan dira danetariko jendea erakarri dutenak ere, argazki erakusketa kasu. Herritarrek inkesta egiteko une aproposa iruditu zaigu.

Gaztetxia danondako gune moduan ikusten dozu? Zer gustatuko litzaizuke ikustia bertan?

ROBERTO LOPEZ

Arotza



Bai, danondako zabalik dago eta. Adinakez leuke juatia baldintzatu bihar, ni lehenago ibilittakua naiz eta badago gerora be Gaztetxera lotuta segitzen dabenik. Hamabostaldixa mantentzia edarki legoke.

MARIBI ALONSO

Zaintzailia



Bai, noski danondako dala, ez dakitt zegaittik daukagun urruntzeko joeria. Ni egon nintzan argazki erakusketia ikusten eta asko gustatu jatan. Gustora ikusiko neuke jazz kontzerturen bat bertan.

UGAITZ CATALAN


Irakaslia



Berez edozeinendako da. Gazte sentitzen bazara eta ekintzetan parte hartzeko gogua badakazu, aurrera! Nere ustez Gaztetxera ekartzen daben edozer ondo dago. Hori bai, denbora bihar da gero danetara azaltzeko.

IDOIA CACHO

Etxekoandria



Herri guztiandako dala luste dot. Sasoi baten Gaztetxian poteua be egingen genduan. Gero jaitsi egin zan baina neretako puntu zoragarria izaten jarraitzen dau. Gaztetxia herriko jendez beteta ikustia nahiko neban.

TXOKO KAFETEGIA


Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Sorluze. Tel. 943 75 17 89

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Elizpe
Hortz klinika



Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURURA
KOPROPOSIZIOK GABEKO ALBAREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa) | Elizburu 3 behea, Sorluze • Tel. 943 75 25 67



Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Xabier Lete gogoratzeko ekitaldia

Bihar zapatua, Xabier Lete oroitzeko ekitaldia noiz eta nola izango den adosteko bilera zabala egingo da Allegro Elkartean, arratsaldeko 19:00etan. Bileran honetara edozein herritar gerturatu daitekeela azaldu dute antolatzaileek baina komenigarria dela aurrez izena ematea 628050449 (Jon) telefonoan, tartean mokadutxoia egiteko aukera izango da eta.

San Blas opil lehiaketa

San Blas Egunean, otsailaren 3an, eguerdiko 12:00ean IV. San Blas opil lehiaketa egingo da Plaza Barrixan. Aurreko urteetako arrakasta gainditzea espero dute antolatzaileek. Parte hartzaileek aurrez eman behar dute izena udaletxean edo 943 751304 telefonoan, otsailaren 2rako.

Jose Almonteren lanak kiroldegian

Abenduaren 11n Kontzejupean erakuste geratutako lanekin erakusketak eskaini du kiroldegian Jose Almonte dominikarrak. Margolanak 20 eta 245 euro artekoak dira eta eskulturak 20 eta 50 euro artekoak. Erakusketa domeka honetara arte zabalik izango da, honako ordutegian:

Asteburuan: 12:00etatik 14:00era

**Diego Moyua oñatiarra Oreka Art aretoan**

Urtarrilaren 21etik otsailaren 6ra bitartean oñatiar batek apainduko ditu Oreka Art aretoko hormak. Diego Moyua (Oñati 1970) irudimen handiko eta kolore biziko margolanak sortzeagatik da ezaguna. Olio-pintura lantzen du berak eta collageak egitea ere atsegin du.

Inaugurazioa: Urtarrilak 21, arratsaldeko 19:00etan.

Astegunetan: 18:30etatik 20:30era

Asteburuan eta jai egunetan:

12:00etatik 14:00ra bitartean

Informazio gehiago: www.diego-moyua.es

Gabonetan umorea, emozioa eta dantzak nagusi



ARGAZKIAK:



Laskuk Gonzalezekin jokatu du berriz

Urte berriarekin batera hasi da inoizko luzeena izango den Lehen Mailako IX. Binakako Pelota Txapelketa. Joan zen urtean moduan, Laskurainek Gonzalezekin batera osatuko du bikotea. Dagoeneko bi partidu jokatu dituzte. Lehenengoa, galdu egin dute 19-22 Iruñeko Labrit pilotalekuan Olai-

zuten Xala – Barriolaren aurka, 18-22. Hurrengo partidua urtarrilaren 16an jokatu beharko dute Olai-zola I eta Belokiren aurka. Final laurdenetako ligaxkan 11 partidu jokatu beharko dituzte eta hortik sailkatuko diren lau bikote onenak finalaurreko ligaxkan jokatu dute. Laskurainen lagunarteak Aritzen partiduetara joateko dei egin die herritarrei.

Erreal-Athletic partidua Ezozin “Plaentxi”ren omenez



Urtarrilaren 22an Iñigo “Plaentxi”-ren omenez Erreal eta Athletic taldeetako berteranoek partidua jokatu dute arratsaldeko 17:00etan Ezoziko futbol zelaian. Partidua hasi aurretik baina omenduaren familiari omenaldi beroa egingo diote, auresku eder batekin. Bestalde,

herriko eta inguruetak merkatariak eskainitako produktuei esker Iñigoren lagunarteak hiru otar dotore zozketatuko ditu partidaren atsedenaldian. Partidurako sarrera doanekoa izango da eta antolatzaileek plaentxiar guztiak gonbidatu dituzte bertara.

San Silvestreko antxintxiketaldi koloretsua

Urte zahar egunean ume, gazte eta heldu koadrila ederrak hartu zuen parte San Silvestre antxintxiketaldian. Eguraldia lagun eta umore onean, globoak, txistuak eta turutak hartuta egin zuten antxintxika herrian zehar.



Iturria: Carlos de Cos

EMAITZAK

PELOTA

Eskuz Binakako IX. Txapelketa

Olaizola II. – Begino	22
Gonzalez – Laskurain	19
Gonzalez – Laskurain	18
Xala – Barriola	22

Atxotegi – Irureta	22
Arteta – Irusta	11
Atxotegi – Jauregi	22
Belloso – Bolinaga	11
Atxotegi – Sarraoa	22-1

FUTBOLA

Igoera fasea

Sora (Erreg.) – Ostadar	5-0
-------------------------	-----

Kopa

Trintxerpe-Azkuen – Sora (Erreg.B)	4-3
Sora (Jub.) – Eibartarrak B	3-1
Arizmendi UDA – Sora (Kad.)	2-1

AGENDA

PELOTA

Barixakua 14, 22:15etan Getarian

Olaizola I – Beloki
Gonzalez – Laskurain

Domeka 23, frontoia eta ordua zehazteke

Mtz De Irujo – Merino II
Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 15, 18:30ean Igartzan

Beasain S.D. – Sora (Erreg.)

Zapatua 15, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg. B.) – Eibartarrak B

Zapatua 15, 17:30ean Iraetan

Zestoa K.B. – Sora (Jub.)

Zapatua 15, 11:00etan Ezozin

Sora (Kad.) – Ilintxa

Errealak Ezozin entrenatuko du

Erreal Futbol Taldeak entrenamendu berezia egingo du datorren martitzenean, urtarrilak 18. Goizeko 10:00etatik aurrera Ezoziko zelaian izango dira jokalaririk denak.



ZORION AGURRAK

**Alain López**

Urtarrilan 20xan 5 urte!
Zorionak gurasuen partez,
asko maitte zaittugu!

**Iker de los Santos Perez**

Urtarrilan 2xan 4 urte!
Zorionak etxekuen partez
eta bereziki Iraian partez!

**Imanol Agirre Arrillaga**

Urtarrilan 20xan 7 urte!
Zorionak mutil haundi!!
Ondo pasatu eguna eta
muxu haundi bat
etxekuen partez!

**Nahia Beristain eta Unai Laskurain**

Urtarrilan 14an eta 20xan urtetxo bana!
Zorionak etxekuen partez!

**Nerea Atxotegi Goenaga**

Urtarrilan 18xan 12 urte!
Ondo-ondo pasatu zure
egunian
eta muxu haundi bat
etxekuen partez!

jaiotakoak

IZUKAITZ CORTES CALLES
ENEKO IRIBAR GALLASTEGI
IKER DOMINGUEZ ORIO
UXUE ROS GIL
ION AMUTXASTEGI AZKOITIA



hildakoak

JUAN MARIA GABILONDO GORROTXATEGI



LEHIAKETA

- Zein ageri
da argazki
honetan?

Saria:

- Juan Mari
arrandegian 30 euro
gastatzeko bonoa.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:** Ander Gomez
- **Jose Felix Laskurain**
institutuko irakaslea da aurreko aleko
argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Eli Lakuesta

PLAENTXIARREN LAGUN TALDIA

Gerra ostian Plaentxiako lagun talde batek etaratako erretratua.

Argazkixan:

Ezkerretik eskumara goixan: Jon Iñarra, Badiola, Placencia, Jesus Igartua, Jabier Agirre, ezezaguna, Jose A. Mujika, ezezaguna, J.M. Altuna, Bolinaga.

Behian: Antonio Oregi, Federiko Eguren.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

100 URTE
1910 - 2010

943 75 13 45



**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

**HNOS. BENITO
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

IV. Danbaka Musika Lehiaketa



Estiloari fidelitasuna eta jarrera saritu dituzte finalera iristeko

Danbakako finala urtarrilaren 14an izango da

Urtarrilaren 14an izango da Danbakako finala. Lord Witch, Xarma eta Desprezio iritsi dira laugarren edizio honetako finalera. Beti bezala, Elgetako Espaloian izango da finala 22:30ean hasita. Hiru taldeek euren emanaldia eskaini ondoren Atom Rhumbak kontzertua eskainiko du. Danbakako finaleko talde gonbidatua izango dira bilbotarrak. Rock-and-roll taldeak Gargantuan Melee azken lana zuzenean aurkeztuko du Espaloian; euren euskarazko lehen abestia jasotzen du lanak: Istingako mutikoa.

Finaleko taldeak

Estiloari fidelitasunak eta jarrerak eroan ditu hiru taldeak finalera. Lord Witch bergararren gainean epaimahaiak ondokoa dio: "Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira".

Xarma ondarrutarren gainean "mezua" daukatela dio epaimahaiak: "Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariekina", gaineratu dute. "Bada ordua XXI. mendean

Do It Yourself edo egizu zuk zeuk errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute eta koherenteak dira", dio epaimahaiak Soraluze eta Bergarako Desprezio taldeaz.

Sariak

Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Kutxak babestutako saria izango da. Debagoieneko talde onenak, oster, MUK babestuta, bideoklipa grabatuko du. Gainera, ikusleen artean Laino Skate parkeak emandako skate materiala eta urtebeteko sarrera doan zozketatuko dituzte. Sarrerak salgai daude 5 eurotan (Gaztekutxarekin, 3 euro).



Iñigo "Plaentxi"ren oroimenez

Urtarrilak 22

17:00etan

Ezoziko Futbol Zelaian



Real Sociedad - Athletic

**jokalari ohien
futbol partida**



Sarrera doan

Antolatzaileak: Iñigoren lagunak